




Langabezia tasa %8,8 izan zen bigarren hiruhilekoan

Langabezia tasa guztira
Ehunekoak




Iturria: INE.

INEren arabera, bigarren hiruhilekoan langabezia tasa %8,75ekoa izan zen Euskadin. Emakumeen tasa puntu erdi igo zen %9,oraino, baina Estatuko txikiena izaten jarraitzen du. Gizonena, berriz, lau hamarren jaitzi zen eta %8,5ean kokatu zen.

Eraikuntzaren kostuek igoera galgatu dute

Eraikuntzaren kostuen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Ekainean, Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren kostuen indizea %11,5 igo zen urte arteko tasas. Tasa hori aurreko bi hilabete-etako tasaren antzekoa da, eta, beraz, badirudi adierazlea egonkortze aldi batean sartu dela. Lehengaiak %13,3 garestitu ziren eta eskulana, berriz, %5,8.




Uztailean Estatuko KPI indizea %10,8ra igo zen



Iturria: INE.

INEk argitaratutako aurrerapenaren arabera, **uztailean Estatuko KPI indizea %10,8an kokatu zen, hau da, ekaineko datua baino sei hamarren gorago**. Beste aldetik, azpiko inflazioa %6,1era igo zen, kasu honetan ere aurreko datua baino sei hamarren gorago. Elikagaiak eta elektrizitatea dira igoera horren erantzuleak.

Sentimendu ekonomikoa ilundu da eurogunean



Iturria: Europako Batzordea.

Euroaren eremuko sentimendu ekonomikoa 99,0 puntuetan kokatu zen uztailean, ekaineko datua baino 4,5 puntu beherago. Beraz, 2000. urteaz geroztik erregistratutako batez bestekoa baino puntu bat beherago dago orain. Familien konfiantzak eta txikizkako merkataritzak jaso dituzte emaitzarik txarrenak.